



© ZALANTZAK

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK
ETA OHIKO ZALANTZAK,
SORTZE-LAN JATORRIZKOEZ
ETA EGILE ESKUBIDEEKIKO
ERRESPECTUAZ.

CEDROren heziketa-programa bat

Definizioa, diseinua eta garapena:

NETURITY

Espezialistak

Jabetza Intelektuala:

CEDRO (Juan José Pindadoreen lankidetzarekin)

Dokumentazio aholkularitza:

Natalia Bernabeu eta M.^a Jesús Illescas

Material inprimatuen eta identitatearen maketazioa eta diseinua:

Pierre Comunica

Itzulpena:

Eskarne Mujika Gallastegi

Dokumentu hau

Es de libro

heziketa-programaren

parte da: CEDROren

ekimenez

hezkuntza komunitate

osoari zuzentzen zaion


programa berezia,

irakurketa, idazlanen

sorkuntza eta egile

eskubideekiko errespetua

sustatzeko.



© ZALANTZAK

Funtsezko kontzeptuak eta ohiko
zalantzak, sortze-lan jatorrizkoek
eta egile eskubideekiko errespetuaz.



Txosten honen aurkibidea

Galderak

Ohiko zalantzak **5**

Zer esan nahi du?

Oinarrizko kontzeptuak
sortze-lanaz, jabetza
intelektualaz, eta egile
eskubideekiko errespetuaz. **14**



- I. Zuk sorturiko lanen inguruan.
- II. Hezkuntza arloan, adibide praktikoaren inguruan.
- III. Egile eskubideen inguruan: terminoak eta kontzeptuak.

I. Zuk sorturiko lanen inguruan

Nola egiazta dezaket lan bat nirea dela?

Lan baten jabetza egiaztatzeko modurik errazena da haren izena Jabetza Intelektualaren Erregistroan ematea. Hala ere, kontua balitz berea ez izan arren lanaren izena erregistroan ematerakoan bere burua zilegi ez den eran egile bezala agertu den baten aurka egitea, orduan zuzenbideak onartzen duen edozein frogara erabil daiteke (lekukoak, agiriak, peritua, etab.). Beharrezkoa izango da, baina, jardunbide judizial bati ekitea, epaile batek erregistro-izendapen okerra deusezta dezan eta lanaren benetako egilearen izenean erregistra dezan. Nolanahi ere, lan baten jabetza intelektualak egileari berari dagokio, haren sortzailea izateagatik ez beste ezergatik.

Kontakizun labur batzuk idatzi ditut eta argitaratu nahi nituzke. Egin al dezaket izengoiti bat erabiliz? Eskubiderik galduko nuke horrela eginez gero?

Ez dago arazorik lana izengoiti bat erabiliz argitaratzeko, ez baita lan horrekiko eskubiderik galtzen. Legeak arautu egiten ditu egileak izengoitiren bat erabiltzen dituen kasuak.

Nobela bat idatzi dut. Jabetza Intelektualaren Legeak babesten al du halakorik?

Jatorrizkoa den eta idatziz adierazten den edozein giza sortze-lan, nobela bat esate baterako, Jabetza Intelektualaren Legeak babesten duen lan bat izango da beti.

Ipuin-sorta bat idatzi dut. Zeintzuk dira nire eskubideak horiekiko?

Gurean indarrean dagoen legeak ezartzen du lan baten jabetza intelektualak egileari dagokiola, lan hori sortze hutsagatik. Jabetza intelektual horren barruan badira, alde batetik, norberari dagozkion eskubideak (eskubide moralak) eta ustiapenekoak bestetik (ondarezko eskubideak), zeinak egileari baino ez diote ematen lanaren xedapen erabatekoa eta ustiapeneko eskubidea, legeak berak ezartzen dituen mugak izan ezik, jakina.

Poema batzuk idatzi ditut. Zenbat denboraz babesten ditu legeak?

Jabetza intelektualari dagokionez, gurean indarrean dagoen legeak esaten du idatzizko lanen ustiapeneko eskubideek egilea bizi den artean irauten dutela eta baita hura hil edo zendu dela jakinarazi ondorengo hirurogeita hamar urteetan ere, lana ezagutzera eman zen data gorabehera. Denbora hori igaro ondoren, jabetza publikoa izango du lanak; alegia, edonork erabili ahal izango du.

Kantu batzuen egilea naiz. Kantu horien zer eskubide laga diezaizkiet hirugarren batzuei?

Edozein sortze-lan intelektualaren ustiapeneko eskubideak (erreprodukzioa, banaketa, jendaurreko azalpena eta eraldatzea) hirugarren batzuei laga daitezke.

Musika partitura bat ondu dut. Era horretako lanak ere babestuak izan ohi dira?

Bai. Jabetza Intelektualaren Legeak esaten du musika lanak, hitzak dituztenak zein hitzizko gabeak, eta haien edozein irudikatze (partiturak, esate baterako) babesturik daudela. Horregatik ezin dira erreproduzitu egilearen baimenik gabe.

Nobela bat itzuli nahi dut. Zer egin behar dut?

Baimena eskatu behar zaio itzuli nahi den obraren egileari edo obraren eskubideen tituludunari; eraldatzeko eskubidea obraren egileari baitagokio soil-soilik, eta itzulpena lan baten eraldatze modu bezala hartzen baita.

Antologia poetiko bat prestatu nahi dut argitaletxe baterako. Zer egin behar dut?

Antologia poetiko bat argitaratzeko, antologiaren prestatzaileak edo argitaletxeak alde aurretik lortu beharko dute hautaturiko poema bakoitzaren egilearen edo eskubideen tituludunaren baimena, horiei baino ez baitagokie beren lanak (poemak) beste lan batean (antologia) sartu ahal izateko baimena ematea.

Lan literarioen datu-base bat egiteko asmoa dut, jendearen eskura jartzeko. Nire datu-basean agertuko diren lanen eskubideak lortu behar al ditut?

Bai. Jabetza Intelektualaren Legeak babesten dituen lanak datu-base batean sartu ahal izateko, baimena eskatu behar zaie haien tituludunei, lan horiek jabetza publikokoak ez direnean behintzat. Baina datu-basean ez badira lanak berak sartu behar, baizik eta haien fitxa deskriptiboak, datu bibliografikoak eta antzekoak, orduan ez da behar tituludunen aldez aurretiko baimenik.

Nire liburu bat argitaratzeko, argitaletxeak edizio-kontratu bat sinatzea eskaini dit. Zer da kontratu hori?

Edizio-kontratuaren bitartez, egileak aldi baterako lagatzen dizkio editoreari lana erreproduzitzeko eskubidea (ale inprimatuak normalean) eta banaketa komertziala, ordainsari baten truke. Jabetza Intelektualaren Legeak ezartzen du edizio-kontratu baten gutxieneko edukia zein den.

Liburu bat idatzi dut, baina oraindik ez da argitaratu. Legearen babesik ba al du?

Bai, obra baten gaineko eskubideak egileari dagozkio obra sortu izanagatik. Obra sortzen den unetik babesten da (jatorrizko lan bat izan behar du, noski), eta ez da beharrezkoa inongo erregistrotan egotea, baina praktikan, obra hobeto babestekotan, Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena ematea gomendatzen da

II. Hezkuntza arloan, adibide praktikoan inguruan

Klase bat prestatzen ari naiz. Egin al dezaket ikasleei banatzeko txosten bat, hainbat liburutako kapituluak eta aldizkari batzuetatik jasotako artikuluen fotokopiez osaturik?

Egin daiteke, erreproduzitu nahi diren lanen eskubideak dituzten tituludunen baimena izanez gero. Hori lortzeko bide erraz bat da CEDROren erreproduzizio lizentzia erabiltzea; erakunde horrek liburu, aldizkari eta bestelako publikazioen egileen eta editoreen izenean ematen baitu baimena. Hala ere, Jabetza Intelektualaren Legeak esaten du ez dela beharrezkoa tituludunen baimenik (ez eta, hortaz, CEDROren lizentziarik ere) irakaskuntza arautuan irakasle batek, bere eskolak argigarriak izateko asmoan, obren zati txikiak erreproduzitzen dituenean gelan erabiltzeko. Legearen arau orokorrak dio obra bat erabiltzeko haren egileen baimena behar dela, eta esan dugu arau orokorraren salbuespena dela arestian aipaturikoa, baina salbuespen hori ez dagokie testu-liburuei, obren erreproduzizio luzei, ez eta irakasleak ez diren beste pertsona batzuek eginiko kopiei edo gelan erabiltzeko ez diren kopiei; kasu horietan guztietan beharrezkoa baita tituludunen lizentzia.

Lankide batzuek eta nik eskola-liburu bat idatzi dugu argitaletxe baterako. Babesten al gaitu Jabetza Intelektualaren Legeak?

Bai, lege horrek jatorrizko lanen egileak babesten dituen heinean. Halere, kasu batzuetan, testu-liburuak gainerako eskubideak liburuak kaleratu dituen argitaletxeari dagozkio soilik, «Talde-lanean eginiko obrak» bezala argitaratu badira; zentzu horretan ulertu behar da Jabetza Intelektualaren Legeak 8. artikuluan adierazten duena, behinik behin: «Talde-lanean eginiko obratzat hartzen da pertsona natural edo juridiko baten ekimenez eta koordinazioz sortu ez ezik bere izenaz argitaratu eta zabaltzen dena; eta hainbat egileren lankidetzaren fruitua da, haien ekarpen pertsonalez sortze-lan bat bakarra eta autonomoa osatuz, eta, halaxe izateko sortua delarik, ezin zaio egotzi egileetako ezeini bakarka obra osoaren gainerako eskubidea. Kontrakoa hitzartzen ez den artean, talde-lanean eginiko obraren gainerako eskubideak dagozkio haren ekimena izan ez ezik hura koordinatu, argitaratu eta bere izenez zabaltu duen pertsonari».

Testu-liburuen idazle diren irakasleek galaraz dezakete ikasleek gelara beren liburuen ale fotokopiatua eramatea?

JEspainian indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legeak uzten du obren kopiak egiten, egileei baimenik eskatzeke, kopiak egiten dituenaren erabilera pribaturako direnean; baldin eta kopiak etekinak ateratzeko asmoz egiten ez badira, edota erreprodukzio zerbitzua eskaini edo erreprodukziorako behar diren tresnak jendearen eskura jartzen dituzten dendetan egiten ez badira. Horregatik, ikasle batek gelara eraman dezakeen testu-liburu baten fotokopia legezkoa izan daiteke.

Eskola-lan bat egiterakoan, kopia al ditzaket erabiltzen ari naizen dokumentuen (liburu, aldizkari, eta bestelako)en zatiak?

Bai, eta egin daiteke, gainera, egileari baimena eskatzeke; baldin eta kopia hori aipamen gisara egiten bada, lanaren azterketa, azalpena edo iruzkin kritikoa egiteko, eta lanaren egilea nor den eta aipua zein iturritatik jaso den behar bezala adierazten badira.

Sartu al dezaket nire lanean egile baten obra baten zatirik, obra oraindik argitaratu gabe badago?

Bai, egilearen berariazko baimena izanez gero. Argitaraturik dauden lanen kasuan, aldiz, egin daitezke aipuak aurretik baimena izan gabe, baldin eta egilearen eta iturriaren aipamenak egiten badira.

Institutuan agintzen diren lanen helburua ikastea dela kontuan harturik, zilegi al da egileren baten obra antzeratzea edo haren obran oinarritzea norberarena egiteko orduan?

Ikasteko baldin bada, zilegi da antzeratzea, baina ez dira ahaztu behar antzeratu, aipatu eta plagiatzearen artean dauden aldeak. Plagioa (inoren obrak norberarenak balira bezala agertzea) delitutzat jotzen da.

Liburuak eta aldizkariak legez fotokopiatu edo eskanea daitezke?

Bai, legeak ezartzen dituen baldintza jakin batzuk betez gero behintzat. Arau orokor gisa, egin daiteke eskubideen tituludunek baimena emanez gero; egileek eta editoreek, alegia. Baimen hori tituludunen eskutik zuzenean lor daiteke, edo, bestela, CEDROren erreprodukzio-lizentzia baten bitartez.

Fotokopiatzea edo eskaneatzea ere legezkoa da, etxean egiten bada eta norberak bakarrik erabiltzeko.

Nire lanean, kalean ateratako grafiti batzuen argazkiak sartu ditut. Horien erreprodukzioa egiteko, baimena eskatu behar al diot egileari?

Ez da beharrezkoa. Kale-plazetan era iraunkorrez kokaturik dauden obrak askatasun osoz erreproduzitu, banatu eta azal daitezke, margoak, irudiak, argazkiak eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz.

Lagun talde bat gara eta lan serio baten parodia egin nahi genuke. Egilearen eskubideak urratzeke egiterik ba al dugu?

Bai, baldin eta parodiatu nahi den obra argitaraturik badago, parodiaren eta jatorrizko obraren artean nahasteko arriskurik ez badago, eta egileari eta haren jatorrizko lanari kalterik egiten ez bazaio.

Argitaraturik dagoen lan bat, edo lan batzuk, itzuli, moldatu, aztertu, gaurkotu, laburtu edo eraldatzeko asmoa dut. Langintza horren fruitu izango zen testuaren egilea neu izango al nintzateke?

Bai. Edozein lanaren eraldaketak -itzulpena, orrazketa, gaurkotzea eta oharpenak egitea, bilduma, laburpena eta erauzketak...- ere jatorrizko lan bezala hartzen dira eta Jabetza Intelektualaren Legearen babesa dute.

III. Egile eskubideen inguruan: terminoak eta kontzeptuak

Nor har daiteke egile bezala?

Legeak egileztat hartzen du obra literario, artistiko edo zientifikoren bat sortzen duen pertsona.

Egile eskubidez ari garela, zer da obra bat?

Obra bat da literatura, arte edo zientzia lan jatorrizkoa, edozein euskarriren bitartez adierazten dena: ukigarria zein ukiezina, gaur egun ezaguna nahiz etorkizunean asmatuko dena. Jabetza Intelektualaren Legeak obraren tituludunari haren gaineko hainbat ahalmen ematen dio.

Existitzen al da ideien jabetza intelektualik?

Ez, Jabetza Intelektualaren Legeak sortze-lanak babesten ditu; alegia, ideien, teorien, sentimenduen-eta adierazpena bitartekoren baten bidez egiten denean; ez, ordea, ideia hutsak.

Zer da egileen eskubide morala?

Jabetza intelektualaren barruan, ondarezko eskubidez gain, badira beste batzuk, pertsonaren izaerari lotuak. Horiei esaten zaie eskubide moralak, eta beren ezaugarrietako bat da egileak ezin diela ukorik egin eta ezin dituela besterendu ere.


Funtsean, eskubide horiei esker, egileak erabaki dezake bere lana zabaldu behar den ala ez eta nola, eta exiji dezake, halaber, obraren egile-izaera onar diezaioten eta bere obra osotasunean errespetatua izan dadin, edozein aldaketaren aurka agertu ez ezik eragotzi ere egin dezakeelarik.

Zein dira ondarezko eskubideak?

Legeak dio egileari baino ez dagokiola obra ustiatzeko eskubidea, edozein izanik ustiatzeko era. Obra ustiatzeko, lau era bereizi izan ohi dira, eta egileari dagokio, izendatuki, era bakoitzaren gaineko eskubidea: erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, jendaurrean azaltzeko eskubidea eta eraldatzeko eskubidea.

Zer esan nahi du obra bat jabego publiko izatera igaro dela?

Eskuarki, obra bat ustiatzeko eskubideek irauten dute egilea bizi den artean eta hura hila ondorengo hirurogeita hamar urteetan. Epe hori bete eta gero esaten da obra jabego publikoa izatera igaro dela eta, beraz, erreproduzitu edo erabilia izan daiteke, oinordekoei baimena eskatzeke eta inolako ordain ekonomikorik emateke.



Hala ere, jabetza publiko diren obra horiek hirugarren pertsonak erabili ahal izan arren, beti errespetatuko da egilearen eskubide morala. Kontuan hartu beharko da, gainera, obra bat jabetza publikora igaro arren, litekeena dela erreproduzitu nahi den edo beste era batera erabili nahi den edizioa, berriagoa delako, jabetza publikokoa ez izatea, eta edizio horren gainean eskubideak dituzten tituludunak existitzea (editoreak normalean).

Egilea hil eta hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera hasten da hirurogeita hamar urteko babes epea.

Noiz esan daiteke obra bat plagioa dela?

Ez dago arau guztiz zehatzik, plagioa noiz egiten den esateko. Kasu bakoitza banan-banan aztertu behar izaten da eta baita auzitegietan epaiak ematean erabiltzen dituzten irizpideak ere.

Zein da jabetza intelektualaren eta egile eskubideen arteko aldea?

Jabetza intelektualaren kontzeptua askoz zabalagoa da, eta haren barruan biltzen dira bai egile eskubideak (obra baten egileari onartzen zaizkion ahalmenak) bai eta egile eskubideei loturiko beste eskubide batzuek ere (obra baten sorkuntzan parte hartzen duten beste agenteen aldekoak; agenteak dira artistak, interpretatzaileak edo jotzaileak, fonogramen eta ikus-entzunezko grabazioen ekoizleak, irratia-erakundeak, etab...).

Zer da Jabetza Intelektualaren Erregistroa?

Jabetza Intelektualaren Erregistroa bulego publiko bat da, eta pentsaturik dago egileek eta beste tituludunek tresna bat gehiago izan dezaten, beren sortze-lan literario, zientifiko eta artistikoen gaineko eskubideak babesteko orduan.

Ez da nahitaezkoa obraren izena ematea erregistroan, jabetza intelektualaren eskubidea izateko haren gaineko; eskubide horiek egileari baitagozkio berez, obra sortu izanagatik.

(Informazio gehiago nahi izanez gero: www.mcu.es).

Zer da jabetza intelektualaren kudeaketa kolektiboa egiten duen erakunde bat?

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bere web orrialdean dioenez, jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa kolektiboa egiten duten erakundeak dira «elkartzeko-oinarria izanik irabazi asmorik ez duten organizazio pribatu batzuk, zeinak, norberaren izenean edo besterenean, legezko tituludunen kontura aritzen diren ondarezko jabetzaren eskubideak kudeatzen.» Langintza horretan jarduteko, erakunde horiek Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren baimena behar dute, ndarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legeak ezartzen duenez.

Gaur egun, Espainian zortzi dira egile eskubideen kudeaketa kolektiboa egiten duten erakundeak, eta obra mota desberdinen gaineko eskubideak dituzten askotariko tituludunak ordezkatzeko dituzte.

Zer da CEDRO, eta zer egiten du?

CEDRO da obra idatziaren alorrean egile eskubideen kudeaketan jarduten duen erakundea. Elkartea bat da, idazle, itzultzaile, kazetari eta editorez osatua, zeinak aritzen diren beren ondareko eskubideen alde eta horien kudeaketa kolektiboa egiten. CEDROren eginkizuna da, Espainia mailan, kultura idatziaren sortzaileen lan-baldintzak hobetzea, eta herritarrei legezko bideak eskaintzea, liburuak, aldizkariak eta gainerako argitalpenak eskura izan ditzaten.

(Informazio gehiago nahi izanez gero: www.cedro.org).



Zer esan nahi du?

Adierazpena. Adierazpena da bitarteko edo euskarri jakin bat erabiliz sormenezko asmo baten gauzatzea. Legearen babespena izateko, obra adierazi egin behar da. Honenbestez, bada, asmook babesgarriak izango dira soilik adieraziak izan direnean, nolabaiteko konplexutasuna dutenean eta jatorrizkoak direnean. Gogoan baino ez dagoen asmoak ez du babesik izango.

Argitalpena. Obra baten ale kopuru bat jendearen eskura jarriz egiten den zabalkundea, obraren izaera eta asmoa kontuan hartuz, beren beharrei zentzuz erantzuteko moduan egiten dena.

Artista. Artista, interpretatzaile edo jotzailezat ulertzen da obra bat, nolana ere, antzeztu, kantatu, irakurri, errezitatu edo jotzen duen pertsona.

Babes epea. Arau orokor gisara, legeak esaten du obra literario, artistiko nahiz zientifikoak ustiatzeko eskubideek egilea bizi den artean eta hura hil ondorengo hirurogeita hamar urteetan irauten dutela, obraren zabaltze data edozein izanik ere. Epe hori bete eta gero, obra jabego publikokoa izatera pasatzen da.

Banaketa. Jatorrizko obra edo haren kopiak jendearen eskura jartzea da, dela salmenta bidez, dela alogeraz, maileguz edo beste edozein eratan.

Copyright. Egile eskubideak babesteko sistema, obra bat kopiatu edo erreproduzitzeko eskubidea babesten duena.

Egile eskubideak. Literatura, arte edo zientzia obra baten egileari egozten zaizkion zenbait ahalmen ere egile eskubideen barruan sartzen dira. Egile eskubidea obrari egokitzen zaio, eta ez haren euskarriari zuzenean. Egile eskubide mota bi daude: eskubide moralak eta ondarezko eskubideak edo ekonomikoak.

Egile eskubideari loturiko beste eskubideak. Loturiko, hurbileko edo kideko eskubideak dira obra baten egilearen eta jendearen arteko bitartekaritza egiten duten pertsoneri dagozkienak; hala nola, artista, interpretatzaile, ekoizle edo jotzaileei dagozkienak.

Egilea. Obra literario, artistiko edo zientifikoa sortzen duen pertsona. Ordenagailurako programen kasuan, programa bere izenean argitaratzen eta zabaltzen duen enpresa har daiteke egiletzat.

Elkarlanean eginiko obra. Hainbat egileren elkarlanetik sortutako obra. Egileei dagokie obraren gaineko eskubidea, berek zehazturiko proportzioetan.

Eraldatzea. Obra baten jatorrizko itxura aldatuko duen langintza itzulpena, moldaketa edo beste edozein aldaketa mota, zeinak obra desberdin bat sortaraziko duen. Eraldatzearen egileak obra berriaren jabetza intelektualaren eskubideak izango ditu, baina jatorrizko obraren egileak eskubidea du –bere obraren gaineko eskubideek babesturik dirauten epe osoan zehar– emaitza berrien era guztietako ustiapena baimentzeko, bereziki, erreproduzioari, banaketari, jendaurreko azalpenari edo eraldatze berriei dagokienez.

Erreproduzioa. Obra bat bitarteko batean finkatzea, obraren zabalpena eta obra osoaren zein parte baten kopiak eskuratzea ahalbidetzen duena.

Eskubide erreserba. Eskubideen erreserba da behin-behineko babes modu bat, eta bere helburua da jendaurrean jakinaraztea eta agerraraztea nor den obra baten tituluduna edo nori dagozkion obra bat ustiatzeko eskubideak eta, beraz, nori eskatu behar zaion delako obra erabiltzeko baimena.

Eskubide erreserbaren sinboloak. Badira obra baten eskubide erreserba adierazten duten edo haren berri ematen duten sinbolo batzuk. Ipar Amerikako legeriatik datorren © sinboloa, copyright (kopiatzeko eskubidea) izenez ezaguna, obra bat ustiatzeko eskubideen tituludunaren izenaren aurrean jartzen da, eta edozein argitalpenaren lehen orrian agertu ohi da. Iragartzen du badirela pertsona jakin batzuen aldeko eskubideak, eta jendeak zeinu hori kontuan hartu ez ezik errespetatu egin behar duela. © sinboloa era guztietako obrak eta jabetza intelektualaren eskubideak aipatzeko erabiltzen da, salbu eta fonograma ekoizleen eskubidea denean (discoak, CDak, etab.), kasu horretan (P) sinboloa erabiltzen baita, ekoizlearen edo lagapen-hartzaile eskusiboaren izenaren aurrean. Fonogramen kopietan edo haien azaletan, fonograma argitaratu den urtea azaltzeaz gain, ustiatzeko eskubideen tituluduna nor den ere iragartzen du. Edozein dendatan eros ditzakegun musika CDak dira horren adibiderik argiena. (P) azalpen hori ingelesezko Producer (ekoizle) hitzetik dator.

Eskubide moralak. Horiei esker egileak erabaki dezake bere lana zabaldu behar den ala ez eta nola, eta exiji dezake, halaber, obraren egile-izaera onar diezaioten eta bere obra osotasunean errespetatua izan dadin, edozein aldaketaren aurka agertu ez ezik eragotzi ere egin dezakeelarik.

Eskubideak kudeatzeko erakundea. Elkarre bat da, egile eskubideen tituludunetz osatua, eta ustiatzeko eskubideak eta bestelako ondarezko eskubideak kudeatzen ditu, legezko tituludunen izenean.

Eskubideen eskualdatzea. Obra baten egileak obra ustiatzeko eskubideak (erreprodukzioa, banaketa, jendaurreko azalpena eta eraldatzea) beste pertsona batzuei lagatzen dizkienean; horren ondorioz, pertsona horiek obra hori erabili eta ustiatzeko ahalmena izango dute aurrerantzean.

Eskubideen lagatzea. Ikus *Eskubideen eskualdatzea*.

Euskarria. Informazioa erregistratuta dagoen materialari edo obra literario, artistiko nahiz zientifikoa finkatuta dagoen eta zabaltzeko erabiltzen den materialari esaten zaio. Euskarriak dira, besteak beste, papera, oihala, bideo-zinta, disko konpaktua, euskarri magnetikoa nahiz digitala, etab.

Interpretatzailea. Ikus *Artista*.

Jabego publikoa. Esaten zaio, ustiatzeko eskubideen babes epea amaiturik, obra geratzen den egoerari. Jabego publikoko egoeran dauden obrak edozein pertsonak erabil ditzake eskubiderik ordaindu gabe, nahiz eta derrigorrezkoa izan obraren egiletasuna eta osotasuna errespetatzea.

Jabetza industrialia. Jabetza industrialaren barruan sartzen dira patenteak, markak, industria modeloak eta merkataritza izenak eta izendapenak.

Jabetza intelektual. Jabetza mota hau ulertzeko zaila da, gogoaren sortze-lanei baitagokie eta horiek ondasun immaterialak dira. Alabaina, gure bizitzan oso presente dagoen jabetza da, hasi erabiltzen ditugun jantzietatik eta entzuten dugun muskaraino. Liburu bat, egunkari bat edo pelikula bat erosten dugun bakoitzean, irratia entzun edo telebista ikusten dugunean, nolabaiteko kultur edukia duen Internet gune batera sartzen garenean edo, besterik gabe, ordenagailu pertsonala erabiltzen dugunean, Jabetza Intelektualaren Eskubideak babesten dituen ondasun

edo zerbitzuez baliatzen gara. Beren eskubideak erabiltzen ditugunez, ondasun edo zerbitzu horien tituludunek, zuzenean edo zeharka, nolabaiteko ordaina jaso behar dute. Okinak egin duen ogiagatik kobratzen duen bezala, liburu edo kantu baten egileak egindako lanaren ordainsaria jasotzeko eskubidea du. Jabetza intelektualak bi sailetan banatzen da: egile eskubideak eta jabetza industrialak.

Jabetza Intelektualaren Erregistroa. Egileek beren obren izena eman dezaketen erakundeak, haien eskubideen babes prebentiboa lortzeko.

Jabetza Intelektualaren Legea. Egile eskubidea eta harekin loturiko beste eskubide batzuk arautzen dituen legea.

Jendaurreko azalpena. Pertsona multzo batek obra bat erabiltzea –aurretik pertsona horietako bakoitzari ale bana banatu gabe– ahalbidetzen duen ekitaldi oro. Jendaurreko azalpenik ez dagoela ulertuko da ekitaldia etxe giroan egiten bada inolako zabalkunde saretara lotu gabe.

JIME. Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak da, eta Genevan du egoitza. 1967an sortu zen, jabetza intelektualaren babeserako nazioarteko elkarlana sustatzeko asmoan. Gaur egun, 183 estatu dira erakunde horren kide.

Jotzailea. Ikus *Artista*.

Obra Literatura, arte edo zientzia lan jatorrizkoa, edozein euskarriren bitartez adierazten dena: ukigarria zein ukiezina, gaur egun ezaguna nahiz etorkizunean asmatuko dena. Jabetza Intelektualaren Legeak egileari baino ez dio ematen haren gaineko ahalmen osoa.

Obraren finkatzea. Obra bat euskarri edo bitarteko batera eranstea, haren erreproduktzioa, kopia eta zabalpena ahalbidetzeko.

Ondarezko eskubideak. Obraren ustiapenerako egileak soil-soilik, eta ez beste inork, duen eskubideari dagozkio, legeak aurreikusten dituen lau mota hauetan: erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, jendaurrean azaltzeko eskubidea eta eraldatzeko eskubidea.

Ondasun immateriala. Egile eskubideak babesten dituen obrak ondare immaterialak dira, legeak kontuan hartzen baititu zuzenean lotu gabe gauzatu diren euskarri materialarekin, hori edo-

zein delarik ere (papera, CD, biniloa, euskarri magnetikoa, oihala, etab.), nahiz eta euskarria oso garrantzitsua izan obra zabaldu eta ustiatzerakoan. Har dezagun, esaterako, musika inprobisazio baten kasua: existitzen da inprobisazioak iraun bitartean, baina desagertu egingo da une horretan grabatzen ez bada.

Originaltasuna. Sortze-lan bat obratzat hartua izan dadin nahitaez bete beharreko baldintza. Alde batetik originaltasun objektiboa dugu, eta bestetik, originaltasun subjektiboa. Originaltasun objektiboak sortze-lan bat besteetatik bereizten du; alegia, zerbait berria sortu duela esan nahi du. Originaltasun subjektiboak, berriz, dio sortze-lan batek pertsona batengan duela jatorria eta haren nortasun, talentu edo asmamenaren adierazpena dela; alegia, inoren obrarik kopiatu ez duela esan nahi du.

Patentea. Denbora muga duen legezko kontzesioa, gobernu batek emana; zeinaren bitartez asmatzaileak –asmatu duenaren agiria izanik eta horren epeak indarrean dirauen artean– galarazi baitezake beste pertsona batzuek bere obra ekoiztea, erabiltzea edo saltzea.

Pirateria. Obra baten pirateria esaten zaio baimenik gabe egiten den edozein motatako erreproduktzioari; liburuen fotokopia edo disko nahiz pelikulen grabazioa, esate baterako.

Plagioa. Inoren asmoak edo obrak kopiatzea, norberarenak balira bezala erabiliz edo azalduz.

Sortzailea. Ikus *Egilea*.

Sortze-lana. Gizakiaren esku hartzearen ondorioz obra bat gauzatzea. Ez dira obratzat hartuko, beraz, naturaren berezko sortzeak. Alabaina, naturak sorturiko objektuak eta elementuak erabili ahal izango ditu egileak, beti ere bere ekarpena eginez.

Talde-lanean eginiko obra. Egile batek baino gehiagok sortutako obra da eta, banaka hartuta, haietako bakar bati ere ezin zaio egotzi obra osoaren gaineko eskubidea. Kasu horretan, parte hartzaile bat bera ere ez da egile modura onartzen. Talde-lanean eginiko obraren gaineko eskubideak dagozkio haren ekimena izan zuenari, hura koordinatu, argitaratu eta bere izenez zabaldu zuenari.

Zabalkuntza. Esaten zaio obraren adierazpen orori, egilearen onespenez lehen aldiz jendarteratzen denean, adierazteko era edozein izanik ere.



Zalantza gehiago izanez gero, esdelibro.es orrian kontsulta dezakezu. Han ohiko galdera gehiago aurkituko duzu, eta nahi baduzu, gure aholkularitza zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke: asesoria@esdelibro.es